Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Txulapain

Aurkibidea

Udalerria: Txulapain

Sarrera



Iruñeko merindadeko udalerria da. Aristregi, Beltzuntze, Beorburu, Gartziriain, Larraiotz, Markalain, Nabatz, Nuin, Ollakarizketa, Otsakar, Osinaga, Untzu eta Usi. Horiei jada htsuak diren herri hauek gehitu behar zaizkie: Iruzkun, Alaitz, Otsabide, Oarritz eta Untzubeiti. Argazkian, Gartziriaingo eliza.

- **Biztanleak**: 548
- **Euskaldunak**: %20,72

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**

- Zintak: **5**
- Pasarteak: **8**
- Transkribatutakoak: **6**
- Audioak: **8**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Urbana Aginaga Azkarate (1890)

Txulapaingo Usi herrikoa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Itxasokoa (Basaburua).

Esteban Garbisu Aranguren (1911)

Txulapaingo Beorburu herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Uharte-Arakilgoa.

Fermina Goldaraz Zubieta (1902)

Txulapaingo Otsakar herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Atallukoa (Araitz).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. "Lixua" nola egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Garbisu Aranguren, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: TXU-001/001
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: "Lixua" (lixiba) nola egiten zuten.

Transkripzioa
- Lixue iteko? lenik, e... pues... mainderiak eta atorrak eta... gauzek, garbitzeko? da nik, bezperatik, e... beratu. Gero? pues, konportan sartu? te... arratsean? ure beroaki pues... gañetik bota, beño... konportan sartu biño len... ori, jabonaki, ederki dena... barratu mainderiei te ator eta

pantalonai ta denei? te gero? pues... azpien? izeten zuten pues...
- Autsa?
- Autse, ta andik pasten tzen ure ta gero... koloria artzen zuen? urek eta gero, aldien biño aldien, beroxeago biño irikitten asi gabe, aldiero, eztait, eztait eo... ore, sei edo zortzi edo... bedratzi edo amar... amar aldis, aldien biño aldien beroxago, bota... konportara, ta andik, e... bañerara, yoaten tzen, ure etaik. Gero? ore, ur ore berotu ëten, beis, ure? tä lixue-ei... bota, t'ola itten tzen, orduen, lixue, esaten giñuena.
- Non guardatzen ziren konportak? handiak ziren?
- Oiek? beh! tamañua?... izeten tzen... ttikia.
- Horrelakoxeak?
- Baa, badi-, aundiaguak baziren ta ttikiagokuak ere bai; eee... goi-, goitti, zabaltxa(g)o, beitti, beitti miartxago, izeten tziren. Ta ändik, pues, txorrota erraten giñiola, andik ure e... be, azpien pozal bat... utzi edo bañera bat eta, ore, bete artio? pues, bete edo erdie zeleik? beis, emendik artu? te beis berotu? te, tira beis.
- Baina konportak ez zuen zulorik, ez?
- Konportak? pai, bai... izeten tzuen kañu bet bezela! kañu bet eta andik, konportatik, andik? bañerara ioaten tzen.
- (Carmen, berriemailearen erraina:) Ahí hay una, en la huerta...
- 'Bañera' erraten zaio palanganari, ez?
- Ez, bañera ez, bañera... ori biño aundiago zen, izeten tzen? pues no sé... pues igual, ogei litro edo geigo.
- Baina ez da bainera gorputza bainatzekoa...
- Ez-ez-ez, bañera... palangana bat bezela o ola balitze biño, biño aundie, e? biño.
- Eta hori noiz arte egin da? duela zenbat urte kendu zen kostunbre hori?
- Ori? izein ttu... beh! oitabortz urte o ola; orai duela? ez! geigo izäin ttu, ogeitamar izein ttu.

1.2. Beorburuko San Bartolome

- **Hizlaria(k)**: Goldaraz Zubieta, Fermina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: TXU-002/001
- **Iraupena**: 0:07:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Beorburuko San Bartolome ermita. Bertan egiten zen festaren inguruko azalpenak. Ze herritako jendea biltzen zen.

Transkripzioa
- Hor bada ermita bat, San Bartolome?
- Bai, sí señor, sí.
- (Alaba, ultzamarra:) San Bartolome, bai.
- Egiten zen erromeria?
- Lenago bai, aurai eztaki(t).
- Zu gaztetxo, neska gaztea zinelarik egiten zen?
- Bai, bai.

- Ia kontatzen duzun zer egiten zen egun hartan; ongi, e? goiz-goizetik nola prestatu eta nola joan eta... akordeona zen edo meza edo zer, aber, ongi...
- Bai, orduen prestatu goizian? Xan Ixidro egune, et prestatu ta yoaten da apezaki, eta apeza... it(t)en du meza, ta gero, itxekuandrëa ematen du gosarie, ta gero an denak yarri? eta... gosaldu. Ta gero, maten da...
- (Alaba:) ¿Y qué, qué llevabas? setas ¿no?
- Sí, mäten da... gero? berriz, berriz, atsaldëan? orduen? otrabez, yoan... elizera? ta itten da errosariue; eta or, berriz, t'ordun? apezakin? en procesión? todos a casa.
- Eta izaten zen akordeona edo musika edo?
- Pues sí había, sí había, sí, había.
- Eta nondik joaten ziren musikariak edo?
- Bueno, de alguno del pueblo allí, que haría algún ruido.
- Eta non, non sonatzen zuten musika?
- An... an, an berean, an berean.
- (Alaba:) Atarien, ermiteko atarien...
- Ermiteko atarien, an berean.
- Eta zer musika izaten zen?
- Beh! kordion bat.
- Baina suelto edo?
- Ah! bai-bai-bai-bai, bai; oooi!... sueltoa! nere alabak? nee alabak... eztait, eztu... danzatu, al agarraö? hasta muy tarde que consintió el padre.
- Hori alabak, e?
- (Alaba:) Sí; había un cura que nos decía: "Infernuko sekretarioa!... ¡aquí en nuestros tiempos!"... o sea que, fíjate, pal acordeón... Infernuko sekretarioa mos! ¡qué desastre!...
- Eta orduan zer izaten zen, akordeona edo txistu?
- Kordiona.
- Eta jende aunitz joaten zen?
- Bai.
- Zenbat herritakoak?
- Pues, bi o iru...
- Herritakoak?
- Bai.
- Otsakarkoak eta Beorburukoak?
- Bai, ta... Osinaga, Aristregi, Nuin... Muskiz...
- Bai? Muskizekoak ere bai, e?
- Bai-bai-bai-bai, Muskiz.
- Gazte aunitz eta biltzen zineten han, e?
- Bai-bai-bai, ta... ta denak ongi unittu? ta ongi... ibilki; denak ongi, ta gustora.
- Eta izaten ziren mayordomoak eta horrela?
- Bai, mayordomo ta mayordoma.
- (Alaba:) Ta piperropillek, ama...
- Eta nork izendatzen zituen mayordomoak? ¿quién los nombraba?
- La juventud, me parece, o eztakit.
- Txandaka egiten zen?
- Txandaka.
- Urte batez herri batekoak...
- Eeeeei! ta beste, urren? beste errie, ta ola.
- Eta eramaten ziren gurutzeak?
- Bai, gurutzëak bai.
- Bai, e?
- Bai-bai-bai-bai-bai.
- Nork eramaten zuen gurutzea?
- Alkatëa(k)... alkatiak.

- Nongo gurutzea? Otsakarkoa bakarrik?
- Ez-ez-ez-ez... beste lekue; zer...
- Herri bakoitzak...
- Eso, erri bakotxa(k).
- Herri bakoitzak berea...
- Beriä, bai; erri bakotxak berea.
- Festa polita, e?
- Bai-bai-bai, festa polite.
- (Alaba:) Allí se conserva eso, allí, el día ocho de mayo, en Alkoz, a la Virgen de Belate, y van todos los pueblos, con... el alcalde lleva la cruz...
- Bai, bai, badakit, Autzako andre batek kontatu zidan ongi, mayordomoak eta herri bakoitzak bere gurutzearekin eta hori, gutiz goitibeiti hori bera, bai. Eta aspaldi kendu zen ohitura hura?
- ¿Qué... que han de llevar con cruz?
- Erromeria hori noiztik ez da egiten?
- Eztaki(t) nik, itten dute orai? o ez, eztakit, eztakit.
- Ez? ez duzu uste, e?
- Eztakit; no creo, e? que se haga, no creo.
- Alabak erraten du saltzen zituztela piperropilek eta...
- Ah, bai, itten da, d'an... emakume bat, da itten da... 'el víspera' cómo es?
- Bezpera.
- Bezpera! bezpera(n)? itten da, piporropillek, ta... mayordomoa ta... mayordoma? la mayordoma? maten du? denetan, piperropille. Ya... kanpokoak ere barin batzen da? también man pan, piperropile... sí.
- Eta bestelako tendereteak edo ez ziren paratzen? San Urbanon bezala eta, ez?
- Ez-ez-ez-ez-ez.
- Hori bakarrik...
- Ori bakarrik, ori bakarrik.
- Piperropillek, e?
- Bai; ta gero, dan(t)zatu?... te itxera.
- Zuk ikasi zenuen dantzatzen?
- Bai.
- Ongi eginen zenuen arin-arin, garbo handiarekin; orain baino hobeki bai, e?
- Aiii!... bai, baia ahora, ahora, ahora...
- Orain ikusi bakarrik, e?
- Orai... orai itten da gauze oso... gaizki.
- Bai, oraingo dantzak itsusiak dira, e?
- Oh! guzia ase? ta gero? asaldean?... arrasëan? atra, ta, itxeti. Ta, amabi, amabi o... orduen etxera, o a las... bospasei? goizian? itxera. Ori, zer modu da? y consentir... aittetama? yo no consentiaba, no. ¿Eso? ser malas es ser mejores, pa los quince años van a la plaza? a los veinticuatro lo perdimos... ¡claro!...
- Modak horrela etorri dira, e? baina ez da gauza ona, ez; eguna gaua eta gaua egun, ezta?
- Bai-bai-bai-bai-bai-bai-bai... oso gogorra da. Ta aittetamak? ez, ez erran ja ere, eztitteke erran... te berak? arrazoña, ta gero? aittetamak...
- (Alaba:) Dena badakite, ama, dena badakite...

1.3. "Bonbolonian" eta beste haur-kanta batzuk

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Azkarate, Urbana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo

- **Erref**: TXU-003/002
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:03:28. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Bonbolonian", "Bat, bide, hiru, lau", "Bolon bat eta bolon bi" eta "Talo-txin, talo-txin" haur-kantak.

Transkripzioa
1)
Bonbolonian bonbolon zaide
Otsua ttan du gure artzaie
Otsokumiak axuri zaide
Adios gure artzaie
Otsokumiak axuri zäide
Adios gure artzaie.

2)
Bat, bide, iru, lau
Arakiñek amalau
Auntzek ala erbi
Eldu naizela ni
Lau, lau, lau
Ardoa kaldu nau
Bien, bien, bien
En Pamplona también.

3)
Bolon bat eta bolon bi
Bolon putzure erori
Bolon pat eta bolon bi
Bolon putzure erori
Erori bazen erori
Ezta yagokoik ägeri
Erori bazen erori
Ezta yagokoik ägeri

4)
Talo-txin, talo-txin
Ator itxera Matxin
Talo-txin, talo-txin
Opill aundi betekin.

2. Baserria

2.1. Animalien eritasunak

- **Hizlaria(k)**: Garbisu Aranguren, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: TXU-001/002
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:03:22. **Bukatu**: 00:07:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Fauna » Natura » Basoko animaliak » Zomorroak
- **Laburpena**: Animalien eritasunen inguruko azalpenak. Kaparrak.

Transkripzioa

- Ardien gaitzak zein izaten dira? xomorroak izaten dituzte, ezta?
- Bai, izeten ttute, baña ni, psss, gutti ibil naiz, ardikin.
- Eta behiek izaten dute?
- Beie pai, zulderrak erraten di(o)un...-e, bultu atzuk? izatettu ta, gusano bat izetute, ta ore ateaezkero? ya pues, bultua... desaparezitzen da.
- Bulkua?
- Bulto (b)at, bultottuat, bultotto at erere... bueno, pikor bat balitze bezela beño, ta... an izeteut-, dute ta... zuldarra, ta an, barnen eoten da, ta ore... ya, aundi xamar itten denean, bera... ateatzen da.
- Eta hor egiten dute etxea, hor bizi dira...
- Bai, or, eztait, or ez, or... ori, eztakit nondik... tortzen den.
- Eta nolako handia da zuldarra?
- Pues zuldarra? pues-pues iten dira... badire, ze? psss... pues... izeten dire kasi... olaxeko bultoa badutena.
- Harrak bezalakoak dira?
- Bai-bai-bai, bai-bai.
- Eta zein lekutan egiten dira gehien bat? belarrien ondoan edo buztanaren azpian edo?
- Ez, ez-ez-ez, ori... tripe gañean, gañean; kostillen... kostille ta... bizkerran... or, izeten dëre.
- Eta sortu, nola sortzen dira?
- Ya! ori eztaitt (...); ni eztakitt, seguru aski... uliek e... piketu te... nik uste, or, ortik.
- Nik aditu dut ardiek izaten dituztela kaparrak eta batzuetan, kaparrak kendu eta, 'hollín' ematen zaiela zaurietan... Bai, biño... por ejemplo, bi mille o... bi mille edo... eztut erraten; bueno, bi mille ta piko, men dute, biño... berraun ardi baldin baittuzu, nondik? ze denbora biautzu, denei, beiretzeko zen(b)at ta, zen-nek duen...-a kaparra ta tzeñek eztuena? ta kaparra, gañera, pues izeten da primaberan, ya denbor ontan, eztu anbertze... ezta izeten. Kaparrak, nik e... neri're peatu... zaizkide, gazte-denboran; igual, pues, baakizu? ig(u)al, bordaldian ta ee, denbora artan, egun guzien igual ee, an aitzen giñen... igual, yorran ta ala ta, beño, primaberan da... oso peligrosoa, obrenean siesta ta guzie an, bazkaldu tä ernittin alumi? (?) ta, te orduen peatzen tzire.
- Bai, animalien artean ibilita...
- Bai, animeletan biño, oyek... e... animeliai ere pegatzen zaiote, biño... kanpöan! kanpoan, izaten dira, primaberan?... izeten da... oso peligrosoa izaten da.
- Eta pertsonei non pegatzen zaizkie? buruan?
- Bien! pues, pues igual... buruen nola lepöan nola... maiz, maiz.
- Eta sartzen dira aski barnera?
- Ez, eeeh! sartu, peatzen die pixke-pixke-pixke eta ala!
- Sentitzen da...
- Bai...-etz! eta... piketzu? eztute... auniz piketzen biño, denboraki, pixke-pixke-pixket pues, pikor bat atra zaizute ta... txupetzen, txupetzen, aundi itten dëre.
- Zer dira, zorriak baino handiagoak, ez?
- Aundiaguak eta, badire!... bai, biño... eztire, zorria e da luzia(g)oköa, biño oyek? in dire... redondo samarrak, biño, izein ttute igual, e... berroitamar edo geigo atzapar, ta... peatzen dire, ya-ya.

3. Lanbideak

3.1. Abereak ferratuta

- **Hizlaria(k)**: Garbisu Aranguren, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: TXU-001/003
- **Iraupena**: 0:04:48. **Hasi**: 00:07:12. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Etxe guztietan egoten ziren abereak eta ferratu egiten ziren. Ferraren bat galduz gero, ferratzera eraman behar. Nola egiten zen ferratze-lana eta zenbat ferra jartzen zitzaizkien.

Transkripzioa
- Gero... denbora artan? itxe guzietan... idiak eta izeiten baizien, ferraturik? itten zittuten...
- Hara, horretara ailegatu nahi nuen.
- Ta, gero... itxe guzietan... mandoa edo beorra edo izeiten tzen? ta oyek ere ferratza-ten tzittute emen. Nik Iruñera aurrenean da ore? etzen autobus orduen, igual... yoan biar tzen? ta... bidian igual... galtzatze zuten ferra bat? eta, ara! bueltan... ferratu? te... biorra eta ola? artu, eamaten giñunak? eta, batek... lenik, beso at ferratu? ta... an, an... ferra... paatu? obenian, ya, gastatuik ezpazeon? galdu ziñuena? eaman, ezperen, pues... berrie patu? te... iltze batzëk, zeraki sartu? beso at e, ferratzen...
- Iltze batekin?
- Ez! zortzi iltze bakotxak, ferra bat... bakotxak bear zittuen; zortzi iltze guttienas. Gero? ori... besoa...
ferratzen ziñuelik? bertzia, bertze. Gero? anka at, ero bertzean? lauek, ferratu te... ba an? obrenian Iruñera yoan bear? ta... an, pixkuat, arreglatui te... ezin? dena... loyez betetzen tziñen? ta dena... bakizu, Iruñen, arara yoan biar tziñuelik e... suertetzen bazen... ferra galtzera? baakizu, beti... dena... zikiñe, yoan biar ziñuen Iruñera. Onata eldu ziñeleik, ya itxera eldu ziñelik, ya etzen anbeste inporta biño, ara yoan bear tzelik? pues igual. Ta idiek, beis? potrua, izeten tzen, ferral...-tzeko, pues idiek? pues an... tranka batzuki? bueltaka ta bueltaka ta bueltaka... eaman? ta, e... besoak eta, an, denak lotu? ta, ayëk? an, ez tziñuen... ukitiar ere, ya, bere artean, ferratzaleak, berak itten zittuen biño, biorra baziñuen edo... zaldi edo... do mandoa o oyek? zeoye, zeorrek artu? te... irikiar tziñuen... ferrazaliak ferratzeko.
- Orduan, aiseago ferratzen zen behia mandoa baino...
- Ba(i)! klaro!
- Mandoa sujetatu behar zen...
- Sujetuik? e... anka betik artute!... ikasi nuen.
- Min egiten zitzaien?
- Beh!
- Hori gogorra dute, ezta?
- Bai, ori bai, ori, azkazala, klaro!
- Ez dute min handirik nabaritzen...
- Ez, mini(k) etzuten bate, arek; por ejemplo pues, ferratu te... denbora ona eiten badu? pues-pues, obrenean, bi zentimetro geigo, kendiar tzioten... azazkala, berri-, berriz ferra paratzeko.
- Zerekin?
- Ah, pues llana bat izeten tzen, ola...

- ‘Llana’? erramienta bat?
- Llana... erramienta bat, bai, llana esaten zioten; bai, orai ere badire. Emen, lengo aldien emen, beiei azazkalak pixkuat mozteko, ori, e... Auzeko... ori? ekar tzun.
- Haiendako ferrak dira guretako zapatak bezala, ezta?
- Klaro! klaro, klaro...

4. Ekonomia eta industria

4.1. Ehugintzaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Azkarate, Urbana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: TXU-003/001
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena**: Ehungintzaren inguruko azalpenak. "Euntzelia" (ehuntzailea) ba omen zen herrian. Haria nola "errokatzen" zen. Gero, lixiba egosi behar. Lan handia zuela eta harekin ezin zitekeela segitu dio.

Transkripzioa
- Piri-piri-piri? y en otro palo hace el hilo, erroka, no gasta palo. Palo? ¡claro! en un palo se pone la estopa, para hilar... mullua; ta gero, pirri-pirri-pirri... ari itten da arreki, errokatu; areki itten da arie mainderiak iteko. Gero, euntzeletan? an? ttin-tan, ttin-tan, tin-tan? así.
- Ehuntzeletan?
- Ni aitu naiz kanillek it(t)en... Je! gure errien bazen eguntzelia, eguntzelia erraten tzaikio orri; paatzaute katxarro batian ta, an trabatzen. Bi... bi kanille patzen dute, arieki, ta itaute: tan! tan! tan!... ortik ona, tan! tan! tan!... “una pa vino y otra pa pan” erraten diote bestëak. Je! nik kus tut trabian, zeatik eguntzelia bazen Utsin, oye tire eguntzeliak, an... mainderiak paatzeko, mainderiak, zuttibik itt-itten zutenak, ariak errokatu, pirripirri- pirri... zuk eztuzu kusi?
- Ez.
- Eje-je!... ni aitu naiz errokatzetan... an tzen pero, bana ikexi nuen, biño gero kendu zuten modernizati-, lan aundie zuen, gëren gizonak in biar zuten... ore erekitzen tzen garie bezala,
alorrëan, yayotzen tzen; gero? atra biar tzuen, denak alde batera paratiaztuten; gero? zanpatu, kendu azie; gero? soroan iduki barratui tennak alde batera; gero, andik karri? te labian sartu, labia berotute... ta an bero-beroa zegolai? atra, ta gero garbak erraten tzioten... zureskoak, ola eskutokieki, an sartue? ta, tan! tan! tan!... tran! tran! tran!... kentzen tzioten zaborr ore dena! ta gelditzen tzen garbi-garbie, ta gero lixuen egosi? autseki tte gio egosi lixuen? t’ek e, paatzen tzen zuri, mainderiak iteko, biño lana aundie zuen! ta utzi zuten ure. Orai eztakit nol iten tuten, emen eztitute in, tierra oketan ezta, beño lenao? erri guzietan baze. Biño etzen posible segitzea, e? lan aundie tzuen; oraingo neskatxek aitu... lan artan, atzoko otrabez?... je! lan aundi zuen andik andia’re. Ni kanillek iten aitu naiz, euntzelia baze errian, euntzelia erraten tzioten ari, ta... yostaketan an, aurrek eta, ya an ta, kanillek eta sartu... burnitto at eukitzen tzuena, an sartu ta tt-reeee... t’andi, olaxe tubo atzuk, ta... aiek,

euntzeliak itten zittü, orti pota! andik onata; ta, tran! tran! tran! Ta “Ze in tzu?” ta, bestiak, etzakitenak, kusten tzuten. “Mira” –Bartolo zaikion, euntzeliai– ta “Mira, ya está ése: una pa vino, otra pa pan, una pa vino y otra pa pan”, erraten tzioten... irris!... euntzeliari; je-je! orai ezta alakoi itten, orai? (...) non itten ttuten, beste giseko makinek, orai etzen posible segitzëa, lan aundie zuen! aundie... lan ona zuen arrek! hola!.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Beorburun ere San Juan eta San Antonen arteko nahasmena ageri (TXU-004/001)

Garai batean egiten ziren bedeinkazioen inguruko kontuak.

2. San Juanetako ohiturak Otsakarren (TXU-005/001)

San Juan bezperan suaren gainetik salto egin eta "San Juan bizpera, sarnak eta miñek fuera" esaten zen. Bedeinkazioak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com